

ATARRABIAKO UDALAREN KIROL ESKOLEN ARAUDIA

ATARRABIAKO UDAL KIROL ESKOLEN ESKAINTZA ATARRABIAN ETA HITZARMENA DUTEN HERRIETAN (EZKABARTE BAILARAN, ANUE BAILARAN, OLAIBARKO BAILARAN ETA ULTZAMAKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEAN) ERROLDATUTA DAUDEN PERTSONEI ZUZENDUTA DAGO, ETA AIPATUTAKO ADINETARAKO.

PLAZAK

- Plaza mugatuak: Gehieneko kopurua gainditzen bada ITXARON ZERRENDAK sortuko dira.
- Plazak izenemate ordenaren hurrenkerari jarraiki beteko dira.
- Ez da onartuko 2024ko maiatzaren 1etik aurrera gauzatutako erroldatzerik.
- **Erroldatu gabeko** pertsonak **itxaron zerrendan sartuko dira**, jada osatutako taldeetan leudekeen toki libreak hartzeko.
- Kirol Zerbitzuak beteko ditu Gimnasia Artistikoko eta Eskaladako hobekuntza-taldeen plazak.
- **Igeriketako Kirol Eskola**: derrigorrezkoa da lau estiloak menderatzea eta behin betiko izena emateko sarrera-proba gainditzea.

ADINAK

Eskaintzaren baitako adinek lehentasuna izanen dute. Adin horretan dauden adingabeak "adingabeak" izeneko itxaron zerrendara igaroko dira, eta ondoren inskribatuko dira, plaza librerik geratuko balitz, **Kirol Zerbitzuaren** eta gurasoaren edo tutorearen **oniritziarekin**.

IIKASTURTEAREN EGUTEGIA

Ikasturtea 2024ko irailaren 16an hasi eta 2025ko maiatzaren 31n amaitzen da. 2024-25ako onetsitako eskola egutegia jarraituko dugu.

ITZULKETA ETA BAJAK

- Maiatzeko aurreinskripzioagatik ordaindutakoa **ez da itzuliko** (behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik)
- Jarduera hasitakoan, ez da ordaindutako kostua itzuliko. Salbuespenezko kasuak idatziz eskatu eta justifikatu behar dira, Udaletxeko Herritarrak Hartzeko Bulegoan.
- **Bigarren kobrantza baliogabetzeko, nahitaezkoa da 2024ko abenduaren 31 baino lehen baja ematea eta idatziz eskatzea HHBan.**

JARDUERA BERTAN BEHERA UZTEA

Udalak, izena eman duten gutxieneko pertsona konputurik ez duten jarduerak bertan behera uzteko eskubidea bere gain hartzen du.

EUSKARA / GAZTELANIA

Talderen batean izenemate kopuru nahikorik ematen ez bada talde mistoak eginen dira.

LAGUNTZAK

Egoera ekonomiko-sozial "bereziek" murrizketak edo doakotasuna izan ahal dute, aldez aurretik eskatuta eta **Udaleko Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoaren** irizpide eta txostenekin bat etorritz.

DATUEN BABESA

Tratamenduaren arduraduna: Atarrabiako Udala

Helburua: Kirol Zerbitzuak antolatzen dituen jarduerak kudeatzea eta albisteak argitaratzea udalaren webgunean eta zerbitzuak erabiltzen dituen sare sozialetan.

Eskubideak: Datuak eta beste eskubide batzuk eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea daukazu, udal-bulegoetara edo dpd@villava.es helbide elektronikora joz.

Informazio gehiago: Gure web orriko Pribatutasun oharra - Atarrabiako Udala atalean, Pribatutasun Politikan sartuz.